

AUTOEBALUAZIOA (5. GAIA)

1. C deskarga koefizientearen inguruko ondoko baieztapenetatik zeintzuk dira egia?

- A Guztiak dira egiazkoak
- B Pitoten tutua $C=1$ balioa onar dezakegu
- C Diafragma neurgailuetan $C=0,610,63$ balioa onar dezakegu
- D Marruskaduraren eragina kontuan hartzeko zuzenketa faktorea da

2. Neurgailu birakarietan biskositatea biratze abiadura desberdinetan jasotako tortsioa neurtuz kalkulatu daiteke.

- A Egia
- B Gezurra

3. Diafragmazko neurgailuan abiadura kalkulatzeko Bernoulliren ekuazioan zein suposizio hartu daitezke?

Aukeratu bat edo gehiago:

- A $z_1=z_2$
- B $P_1=0$
- C hf mesprezagarria
- D $u_2=0$
- E $u_1=0$
- F $P_2=0$
- G $h_p=0$

4. Emari bolumetrikoaren neurketa ekipoa martxan dagoela noizbehinka egitea gomendatzen da, funtzionamendua egokia dela egiaztatzeko.

- A Egia
- B Gezurra

5. Tenperaturaren eragina biskositatearengan aztertzeko Arrheniusen ekuazioa erabili dezakegu.

- A Egia
- B Gezurra

6. Tutueriako diametroa txikitzean, abiadura handitu egiten da eta beraz, presioa txikitu egiten da.

- A Egia
- B Gezurra

7. Tutu kapilarreko neurgailuetan biskositate zinematika likidoak altuera jakin bat zeharkatzen ematen duen denbora neurtuz kalkulatu daiteke.

- A Egia
- B Gezurra



8. Zein ezaugarri izan behar ditu U manometroaren barnean erabiltzen den likidoak?

Aukeratu bat edo gehiago:

- A Merkurioa da erabiltzen den likido manometriko bakarra
- B Nahasgaitza izan behar du
- C Koloratzaile bat gaineratu behar zaio altuera diferentzia ikusteko
- D Tutuerian zehar darion jariakina baino dentsuagoa izan behar du

9. Neurgailu hauetatik zeintzuk oinarritzen dira sekzio aldaketan eragindako presio galeran emaria neurtzeko?

Aukeratu bat edo gehiago

- A Pitoten tutua
- B Diafragma
- C Errotametroa
- D Venturimetroa

10. Pitoten tutuan abiadura kalkulatzeko Bernoulliren ekuazioan zein suposizio hartu daitezke?

Aukeratu bat edo gehiago

- A $u_1=0$
- B $P_1=0$
- C $z_1=z_2$
- D h_f mesprezagarria
- E $u_2=0$
- F $P_2=0$
- G $h_p=0$